

Miren Zubia Zabala

*Eskoriatza,
Gipuzkoa
(1923-2016)*

Aurkibidea

Biografia



Eskoriatzako Bolibar auzoko Ezibei baserrian jaio zen. Baserriko lanak eta bizimodua zuzenean ezagutu izan ditu. Auzoko abadearen laguntzaile eta elizako serora ere bada. Oso hiltun ona da, euskara zoragarria darabil eta etnografi gaiez ere oso azalpen interesgarriak ematen ditu.

Zintak

ESK-032

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-07-18
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

ESK-033

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-07-18
- **Iraupena:** 50 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

ESK-103

- **Proiektua:** Arantzazu Sagarzazuren fonoteka
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sagarzazu Sacristan, Arantzazu
- **Data:** 2010-01-01
- **Iraupena:** 150 min
- **Euskarria:** Audio digitala
- **Emalea:** Sagarzazu Sacristan, Arantzazu

Pasarteak

1. Jatorria, Bolibar auzoaren inguruko gorabeherak

- **Erref:** ESK-032/001
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Bolibar auzoan jaiotakoa, 1923ko martxoaren 18an, Esibei baserrian. Bolibarko auzuneen izenak: Eraña, Goietxeak, e.a. Gaztea zenean 34-35 baserri inguru zeuden auzoan. Egun, etxeak ugaritu egin dira baina biztanle gutxiago dago.

Transkripzioa

- Nun jaixo ziñan, ze urtetan...?
- Bolibarren, Bolibarren, "dieciocho de marzo de mil novecientos veintitrés". Asike, gaur dauket larogeta hiru eta lau hillebete. Hamazortzixe... Klaro.
- Bolibarren ze basarritan edo...?
- Esibei.
- Esibei.

- Uste dot apuntauta dakatela... hemen etxe-multzo batzuk badare, ba?
 - Auzounak, bai.
 - Auzounak. Eta ze izen hartzen dabe auzouna horrek?
 - Ba, batzuk [Zubiztarro], Eraña, Goietxiek, Otsaibe aldiek... holan die.
 - Besterik akordatzan jatzu?
 - Ez.
 - Orduan, ze dia? Etxe-multzo batzuk...
 - Bai, bai. Eske, berez, gaiñera, betik auzuen hasten da etxe baten, ezta? Ta baserrittik baserrira, baserrittik baserrira betik faten da “en fila”. Kontaute illeran, e? Betik. Otsaiben hasi ta Errotan bukatu, buelta dana. Oin gehittute daz etxiek. Lehenau gu gaztiek gitzenien, ba, egoten zien hogeta hamalau, hogeta hamabost. Hori. Ta oin die, ba, berrogetakak daz. Jentie gutxiao, e? Personak gutxiao.
 - Lehenau familixak be haundixauak zian...
 - Bai! Oin hirurogeta hamar urte ta, oin hirurogei urte ta, hirurehun bat lagun, persona. Ta oin, ba, ehun ta hamaika, hamabi...
 - Orduan, etxiak gehittu, baiña...
 - Etxiek gehittu baiñe... klaro, familixak lehenau seme-alaba askokuk egoten zien ta. Gu geu bostekue gitzen. Holako asko be ez beste batzuen onduen, baiñe, ba, familixak haundixek izeten zin. Bai.

2. Baserri ingurua nolakoa zen; bideak

- **Erref:** ESK-032/002
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:02:45. **Bukatu:** 00:03:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzeta eta sorroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Baserri ingurua dezente aldatu da. Lehenago bi bizitzakoa zen; duela gutxi kendu dute etxeetako bat. Ingurua nolakoa zen; bideak. Zer landatzen zuten sorroetan.

Transkripzioa

- Zeure akorduan zeure basarrixa edo basarri ingurua zelakua zan? Asko aldatu da edo...?
 - Bai, bastante aldatu da. Etxie be, etxie be bi bizitza zan eta oin aldamenekue jausten edo euen ta, ba, ha kendu ein dotsie ta bakarrik geratu da etxie. Bai.
 - Eta ingurua?
 - Bai, berdin antxien dau.
 - Bai?
 - Bai. Lehen automobilik-eta ez zala allegetan, ez zalako [...]. Oin, oin danera allegetan da ta, klaro...
 - Bestela paisajia, hemen Bolibarko...
 - Paisajia? Oso politte.
 - Bai, paraje oso ederra. Baiña lehenau bihar bada, ez dakit, ez? Labratzeko...
 - Landute! Lehenau dana landute ta oin dana zelaixe.
 - Berde...
 - Oin berdie, berdie dana. Bai.

- Ta lehen, orduan, ze zian, solo haundixak?
- A! bai, bai, dana landute egoten zan! Artue, babie, garixe, erremolatzak, patatak, babak... horrek danok.

3. Basoak. Langintza zaharrak: ikazkintza eta karobiak

- **Erref:** ESK-032/003
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:03:45. **Bukatu:** 00:05:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobeitxamendua

Laburpena:

Basoak nolakoak ziren. Oraindik ere pagadiak daude. Lehenago ikatza egiten zen; zein garai izaten zen egokiena langintza horretarako. Egurra noiz botatzen zuten. Mirenen etxean ikatza eta karea ere egiten zuten. Karea soroetan botatzen zen.

Transkripzioa

- Baso inguruak-eta kanbixau dia edo lehenau, ba, ez dakit, oin piñua be ikusten da...
- Bai, gehixau dau, bai. Han nere basarrixen ondiokan be pagadixek badaukie, e? Mendixen. Bai. Lehenau iketza itten zan. Martixen botaten zan, martiko ilbeheran, egurre, ta gero setienbrien edo larriñak-eta eitten zienien, ezta? Garixek trillau ta [haik] eitten zienien handik eta San migeletara —hemen da San Migel, ezta?—, handik eta San migeletara, ba, gizonak-eta eitten zittuen, ba, mendixen iketzak. Bi txondor edo hiru edo... Ba, bueno, dirue be nunbaitetik biher zan ta...
- Eta txondorak ze eitten zian auzolanian edo...?
- Ez, ez, bakotxak beriek. Bakotxak beriek.
- Orduan, basarri bakoitzak bi-hiru...
- Bai, segun... Batzuk eitten euen beste batzuk ez. Gure etxien itten zan. Ta karobixe erre be bai solorako karie botateko.
- Txondorra, esan dozu, egurra martixan botatzen zala...
- Martiko ilbeheran paguei moztu abarrak, "bota" hori da.
- Hori ze izaten zan...
- Iketza eittekie.
- ... bakoitzak beran basoko...
- Bai, bai, bai. Bai, bere mugarrixekin daz, bakotxak bere basuek die. Ta, ba, han... Ni gaztie nitzenien? Bai, bai. Ta karobixe erreten be bai akordetan naz.
- Eta ikusten zenduan, orduan, zuk aitta...
- Kargetan be bai eta kargau zelako ondo...

4. Karobi-erretzearen inguruko azalpenak; lexikoa

- **Erref:** ESK-032/004
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:05:20. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Karobiak nola kargatzen ziren. Karobiaren inguruko azalpen interesgarriak; lexikoa. Erabiltzen zen harri klasea. Karea zein garaitan zabaltzen zen soroon; mamorro gutxiago izaten zituen lurrak karea bota ondoren.

Transkripzioa

- Ni gaztie nitzenien? Bai, bai. Ta karobixe erreten be bai akordetan naz.
- Eta ikusten zenduan, orduan, zuk aitta...
- Kargetan be bai, eta kargau zelako ondo itten zan, e? Zelako ondo!
- Zelan [gogoratzen] dozu?
- Karobixe da zulo bat, ezta? Zulo bat hola bueltan. Eta gero dauko mailla bat han... Ta gero da gora, e? Hormakin ta einddeko toki bat da, e? Bueno. Ta gero atakie da... ba, bai, ba, personie sartzeko moduen arkue, arkutxo bat. Eukiko dittu, ba, metro ta erdi edo holan. Handik barrure sartzen zan ta kargau eitten daue, kargau eitten euen —gaztie izen arren horretxekin fijetan nitzen ni—, han maillan hasten zan ta hor potxolue. Han ure egoten zan. Enjeneral, eurixe-ta eindde egoten zan ta ure egoten zan. Ta gero handik potxolotik kañuek euen harek kanpora. E? Kañue. Zetarako? Ba, karobixe erreten dauenien arnasie hartzeko, kañuek-eta. Gero, urek-eta falta itten ez [ebenak], ba, handik urtetan euen. Ta kargetan euen bobedia zelako edarto itten otsien gizonak. Hatx-harriraz, e!
- Klaro, harri espeziala bihar izaten da, ez?
- Hatxa, hatxezkue, bai, “piedra de cal” esaten dana. Ta han maillan hasten zien bueltan, bueltan, bueltan, handik arku ondolik hasi ta han bueltan. Eitten euen kargetan, kargetan, kargetan, eitten, eitten, eitten, formetan zan bobedie. E? Bobedie. Laba bat ikusitte daukotzu ogixe eittekie? Zela eukitten [dauen] han goixe? Ba, holaxen jarten zan. Eta gero handik goittik botaten euen ganauekin-ta burdixaz eruen harrixe eta bota. Eta ha bobedie ez zan jausten! Ta, pentseizu, “rraa!” harrizek eta. Baeukien zera, e? Meritue gizonak. Eta gero egoten zan... Hori bai, karobixa erreten lagundu itten jakon, auzuek lagunketan auen, zeaittik egon biher zan, bost-xei egun edo die, denpora danien suten.
- Hori zaindu ein bihar izaten zan...
- Suten. Otak, “argoma”, e? Zela [izeten da] otie, piketen dabena, hori ebagi itten euen. Neguen-edo ebagi itten euen hori, otie. Eta lehelengoko egun batzuetan otie sar... A! Gero, ha atakie, ha kuadrue, “que diga”, arkue, ha zerrau eitten euen. Ifintten euen tubo bat holan. Izengo zan, ba, karretilla baten-edo modukue edo holan, tubo bat izeten zan. Eta ha dana... “zohixek” die zelaixan ataraten die bedarrakin.
- Lur zati...
- Bai, lur zatixaz, zohixek. Harekin zohixekin ha dana atakie zerretan euen. Ta ha...
- Libre lagatzen zan?
- Haxe zulue bakarrik libre, handik sue sartzeko. Gero, behetik eukitten eben beste kañu bat “trongadak” esaten eutsiena. Zien paguek...
- Badabil lanian. Lasai...
- Paguek luziek sartzen otsien azken samarrera, gero abarrak be bai. Ha bota zan paguen abarrak, “la leña”, ha be hantxe aprobetxaten zan, karobixen erreten, karobixe suten eukitten. Eta haik trongadak be, gero betik be “rra!” aurreratu ta sue izeten zan. Ta gero, “ffiii” goixen hola

gauza bat, hori, eguzkixe-ta fuerte dauenien egoten da holako gauza bat... ya erreta... egositte [...] karobixe euenien hola egoten zan handik goittik. Harrixek egositte, ya kare eindde. Baiñe berue izeten zan gero be, e! Sue hotzittu ta gero be karie ein barri-barrixe oso berue izeten zan. Ganauek-eta be txarto ibiltten zien, hankak beroketan jakuen, soluen erueten-ta dabitzela. Jakin ein biher zan ze sasoitten zabaldu ta holan. Enjeneral, artuek eraitten zabalketan zan. Ta horreaz egoten zan, ba, lurre fazil-fazil, mamorro be gutxiao egoten zan... Eta hartarakotxe izeten zan.

5. Karea nola egiten zen

- **Erref:** ESK-032/005
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Harria nondik eta nola ateratzen zuten. Harria txikitu eta gurdiaekin baserri ingurura eramaten zen. Etxeak zuritzeko ere karea erabiltzen zen. Karobia erretzeko pago-egurra izaten zen egokiena. Auzoko baserrietako gizonek elkarri laguntzen zioten. Sei egunez egoten zen karobia erretzen. Karobien izenak. Elkarri laguntzeko ohitura handia.</p>

Transkripzioa

- Harrixa, esan dozu, hatxa izan bihar zala...
- Hatxa.
- Eta nundik ekartzen zeбен edo...?
- Hatxien ataraten euen. Eta, gaiñera eitten euen...
- Eurak ataratzen zeбен?
- Barrenuekin! Holan hartu bi lagunek edo, barrenuekin zulue; “danba!, danba!, danba!”, haintxe zulue ein, e? Eskuz. Eta gero han ifintten euen kartutxo bat ta eitten euen esploziñuaz urteten eben, apurketan zan. Baiña eskuz eindde dana, e!
- Gero burdixakin dana kargau...
- Gero burdixekin eruen dana. Gero zerakin, porrakin-ta apurtu harek hatxak. Zatittu ein biher zien, klaro! Eta gero burdixekin karobira eruen. Karobixak egoten zien hor ta hemen. Ni hemen be lauaz-edo akordetan naz zelan [erezen]. Oin be badaz, e!
- Basarri bakoitzak gutxi gorabehera eukitzen zeбан beran karobixa?
- Bueno... Bien artien edo holan, bi-hiruen artien edo holan izeten zan, enjeneral. Gero, burdike, ba, errepertue egoten zan. Inkluso etxien letxadie eitten zan, etxie zurittu-ta eitteko be etxien eitten zan. Gurien, behintzet, etxien itten euen. Aitta arotza zan.
- Karia gauza askotarako erabiltzen zan, ez?
- Bai! Gauza askotarako.
- Esan dozu harrixa nundik ekartzen zeбен, zelan kargau... Egurra paga izaten zan?
- Pague, pagare, pagare.
- Derriorra zan paga izatia?
- Bai, bestiek ez dauke berotasun... ez da iguela.
- Sei egunetan erretzen egon bihar zan karia...

- E?

- Sei egun ingurutan eretzen egon bihar zan karia...

- Bai, eta gero itxi eitten jakon.

- Eta bertan egoten zian zaintzen?

- Gabe ta egun!

- Gau ta egun bertan...

- Sue dauenien, suten dauenien, lagundu biher jakon. Osea, gabe ta egun. Holan lagunketan euen auzuek. Ta gero han dabillenien bestiek [eurekana]. Ni akordetan naz hiru bat tokitten-edo hemen. Danak ez euen hori eitten, e!

- Bertan egoten zianian eukitzen zebe tokitxo bat edo aterperen bat han egoteko edo lo eitteko edo... karobi inguruan?

- Lo ez euen eitten han.

- Ez?

- Errelebau eitten zien. Batzuk, ba, ordu batzuetara fango zien; gaberdixen... Ni gaztetzue...

- Txandaka?

- Txandaka, bai, bai. Gero eukitten euen, ba, ardaue edo ure edo jana edo han eukitten euen ta, ba...

- Eta gogoratzen dozu gitxi gorabehera nun zeren karobi hauek?

- Bai.

- Ez dakit, izena...

- Bai. Bat Esibeiko karobixe, hor; beste bat Lapatzakue; beste bat Erañen. Horreik hirurok bai. Hiru, baiña ondo daz; haik oindio ondo egongo die, e! Bueno, Erañekue ez dakit, baiña hori Lapatzakue ta Esibeikue ondo egongo die oindio, bastante ondo, hola, ikusteko moduen-ta.

- Orduan, hau auzolanian eitten zebe ta gero banatu eitten zebe, ez?

- Gero lagundu eitten otsien etxe batzuk beste batzuei, ezta? Eta, ba, gero bien artien edo hiruen artien erreten euen ha karobixe. Ta hareindako izeten zan karie.

- Ya repartidu ondoren, bakoitzak, basarri bakoitzak beran karia...

- Bueno, han lagunketan ibili arren, harek ez euen kareik eruten handik. Ez, ez. Por ejemplo, bien... bi... bi familixan artien igual karobi bat erretie pentsau euen, ezta? Erretie. Ta gero beste batzuk harei lagundu eitten otsien. Eske egoten zan oso... bata bestiei lagunketako gauza haundixe egoten zan. Lagundu eitten jakon asko. Hemen bai, behintzat!

- Eta, gaiñera, derrigorra izango zan, ez? Ze batzuetan bati lagundu bihar beste batzutan noberari...

- Bai, bai.

- Dana dala, ba, bi-hiru basarrin artian erretzen zanian, euren artian bai repartitzen zebe kare hori...

- Bai, harek karobixek eukitten euen jabie, baiña beste batzuek be lagundu eitten euen gero.

- Eta gero hori, kare hori, basarrixan nun gordetzen zan? Bazeuan toki espezialen bat?

- Ez, ez, solora.

- Solora zuzenian?

- Bai, solora, artuek erein biher zienerako.

6. Karea soroan zabaltzen zen

- **Erref:** ESK-032/006
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:14:00. **Bukatu:** 00:15:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Karea erre ondoren zuzenean sorora eramaten zen. Umetako oroipenak. Karea erre ostean bazkaria egiten zuten karobian laguntzen ibilitakoekin.</p>

Transkripzioa

- Eta gero hori kareori basarrixan nun gordetzen zan? Bazeuan toki espezialen bat?
- Ez, ez, solora.
- Soora zuzenian?
- Bai, solora. Artue ta erein biher zienerako. Por ejemplo erreten zan karobixe, ba, maietza baiño lehenao. Neguen be ez, neguen be ezin leike erre. Baiña akordetan naz ni, bai, bai. Mallukixek be egoten zien orduen. Akordetan naz, etxe baten bazkarixe zan. Karobixe erre ta, jo, ba, gero famelixen artien zelebrau eitten zan, klaro! Eta akordetan naz zelan etxe baten eukien —ni txikitxue, eta—, etxe baten eukien kuajada, gatzatue, ezta? Ta gero mallukixek, [...]. Eta [ni] orduen... kuajada... gatzatue gutxi gustaten jaten; mamia, ezta? Ta han batek [esaten eban]: “Ai! Neuk beste gauza batzuk gutxi jan biher dittut, baiña hori jan biher dot!”, neska bat zan. Ta zelan jan zittuen oin natie botaten jakon moduen, gatzatue bota zeai, mallukixei, eta jan. Horretxek... horixe daukat goguen!
- Detalle hori goguan dakazu, orduan...
- Bai, bai, bai, detaillie. Gaztie izengo nitzen ni orduen, klaro! Bai, ta egun baten, ba, hori eitten zan.
- Orduan gero zelebraziño moduko bat eitten zan, bazkariren bat edo...
- Bai, bai, eitten zan. Haik familixa bixen artien. Gero bestiei be, ba, zeoze emungo jakuen nos edo nos nunbaitten, nik ez dakit...

7. Karea etxeak zuritzeko ere erabiltzen zen

- **Erref:** ESK-032/007
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:15:40. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Baserriak zuritzeko "letxerie" egiten zen. Nola egiten zen; igeltseroek paretak zuritzeko erabiltzen zuten. Etxeak noiz zuritzen ziren. Auzoko jaiak San Migeletan izaten ziren, eta ordurako etxe-garbitzeak, koltxoi-garbiketa, e.a. izaten zen.

Transkripzioa

- Baiña esan dozu momentu baten letxeria edo eitteko, basarrixak zuritzeko...
- A, bai. Hori... Guk geuken aska bat harrizkue eta haintxe eitten eben nere aitta zanak eta aittaitte... aittajauna esaten dou guk, ezta? Zanak eta haintxe eitten euen. Nahastu, nahastu, nahastu eitten euen ta tapau,

tapau, tapau ein tablakin, tabla batzukin edo —beste gauzaik zer egongo zan, ba, orduan?— tablakin tapau eta beti botaten otsien ure, betik uraz. Eta gero paletiekin “ra!” hartzen zan ta sendo-sendue egoten zan, ura behien geraketan zan. [Gaiñera], paletiekin hartu ta, ba, igeltseruek han eitten eben kaldaran mezkli ta, ba, paretak-eta zuriketako.

- Hori zenbatero eitten zan edo?

- E?

- Zenbatero eitten zan hori, basarrixak zuritzia? Urtian behin...?

- Urtien behin bai, e!

- A, bai?

- Bai, bai, bai. Ta nere etxien sukaldie be urtien bi bider be bai. Tia be ondo gustetan jakona izeten zan ta...

- Gaiñera hori, ez dakit, ze izaten zan insektu edo edozein gauza... zikinker...

- Igual... igual... hemen betik die... hemengo patroie da San Migel, setienbrien, ezta? Hogeta bederatzixen. Oin aldatuta egoten da aurreko igandera, domekara, jaixe edo holan. Baiña San Migeletarako? Danak! Bai, bai, hori ta koltxoiek eta danak jo ta garbittute! Lanazkuek, ezta? Ta gazte-gaztie nitzenetik ikesi neben josten koltxoiek. Amak zabalduite ifintten osten dana hola, ondo, ondo, eta txiki... txikiñe —oin be ez naz haundixe ta orduen txikiñe, klaro—, baiñe afan bat josten...! Izeten zan orratz luze bat ta zinttak, ta zuluek eukitten zittuen [arkuetan] moduen koltxoiek. Ta holan eskua azpixon sartu, koltxoien azpixon, ta goittik norberak topau zulue ta gero bestien sartu gora ta gero gibistie ta ya esta. Gero azkenengo josten notsen puntie. Baiña gaztie nitzela, e! Hamalau bat urte? Ba, hamalau-hamabost bat urterako josten neuen nik koltxoie.

- Demaseko lana izango zan hori be bai koltxoi guztiak astintzia ta...

- Soltau, zinttak-eta kentzen jakon, muturre soltau ta ifintten zan eguzkittan zera, lanie, hobeto joteko. Ta gero [iregurraz], bi egur alkarreana lotzen die eta norbera zutik dala oso ondo eitten da. Bata bueltaka faten da, baiña bestie eukitten dozu eskuen.

8. Etxe-garbitzeak noiz izaten ziren, zein urte-sasoitan

- **Erref:** ESK-032/008
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:18:10. **Bukatu:** 00:20:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Koltxoiak nola garbitzen, astintzen ziren. Etxeko lan horrek noiz egiten ziren. Gari-jotzea: garia "larrindu"; etab. Arbiak erein ondoren etxeko lan astun horiek egin behar izaten ziren. Lihoa (linua) ere ereiten zuten bere baserrian.

9. Kareia oso arriskutsua izaten zen; ikutzen zuen guztia erretzen zuen

- **Erref:** ESK-032/010
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:25:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

Laburpena:

<p>Karea erre ondoren oso beroa egoten zen eta karobian bertan lagatzen zen hilabete inguru. Karea oso arriskutsua izaten zen; guztia erretzen zuen. Abereentzat ere oso gogorra izaten zen karea soroan zabaltzea. Soroan noiz, zertarako botatzen zen. Zizare, txindurrien garrantzia soroetan.</p>

10. Lur-klase desberdinak; bakoitza zertarako zen egokia

- **Erref:** ESK-032/011
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:25:10. **Bukatu:** 00:27:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Lur-klase desberdinak. Lur sendoan, berakatz, baba-beltza, e.a. hobeto hazten dira. Beste zenbait gauza, lur arinagoan hobeto. Ainubeko baba, eguzkialdekoa baino hobea. Etxean babak nola egosten ziren.

11. Baserriko ekonomia; erreterroak, etxe-jabeak

- **Erref:** ESK-032/015
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:34:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Erreterroak; etxe-jabeak. Erreterroak maiorazgoak baino hobeto bizi zirela zioen emakume batek. Honen arrazoia zein zen. Txorizoak nola kontserbatzen zituzten baserrietan. Etxeko giroa.

12. Etxeko giroa; txorizoak oliotan nola sartzen ziren

- **Erref:** ESK-032/016
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:34:45. **Bukatu:** 00:36:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Txorizoak oliotan sartzen zirenean, egun hartan meriendatarako zatitxo

bana jaten zutela gogoan du. Etxeko giroa. Baten batek zioenez, maiorazgo etxeetan ez zen horrelakorik egiten.</p>

13. Baserriaren egitura; ogigintza; emakumeen bizimodua

- **Erref:** ESK-032/017
- **Iraupena:** 0:06:50. **Hasi:** 00:36:00. **Bukatu:** 00:42:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Baserriaren egitura. "Eskapeie"; "ittuie". Labean, artoa eta ogia egiten ziren. Artoa eta esnea, batez ere neguan jaten zen. Oremahaia; irina eralgi. Ogia nola egiten zuten azaltzen du. Taloa eta artoa. Lehenagoko emakumeen bizimodua baserrietan.</p>

14. Lan-banaketa gizonezko eta emakumeen artean; emakumeen bizimodua

- **Erref:** ESK-032/018
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:42:50. **Bukatu:** 00:44:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Gizonezkoen eta emakumeen arteko lan-banaketa baserrian. Ortuko lana, emakumeena. Emakumeen bizimodua baserrietan. Emakumeen arteko harremanak; igandetan elkartzen ziren meza-nagusitan.

15. Emakumeen bizimodua: arropa nola garbitzen zen

- **Erref:** ESK-032/019
- **Iraupena:** 0:06:25. **Hasi:** 00:44:30. **Bukatu:** 00:50:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Antzinako emakumeen bizimodua. Lixiba nola egiten zen; "pujetie". Harizko arropak. "Hauts-trapue". Gaiarekin zerikusia duen lexiko interesgarria. Pago egurraren garrantzia. Oraindik ere, Bolibar inguruan pagadi handiak daude.

16. Emakumezkoen arropak; jostunak

- **Erref:** ESK-032/020
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:50:55. **Bukatu:** 00:53:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Emakumezkoen arropak. Lehenagoko jostunak. Miren ere 20 urte ingururekin joan zen josten ikastera. Garrantzi handia ematen zitzaion josten jakiteari.

17. Emakumezkoen arropak; jostearen inguruko azalpenak

- **Erref:** ESK-032/021
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:53:25. **Bukatu:** 00:57:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Emakumezkoen arropak. Jantzeko eran aldaketa nabarmenak zeuden belaunaldi desberdinetan. Arrasaten eta Eskoriatzan erosten zituen telak. Jostearen inguruko azalpenak: telak, teknikak...

18. Emakume eta gizonezkoen antzinako arropak

- **Erref:** ESK-032/022
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:57:10. **Bukatu:** 00:59:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Emakumezkoen arropak, oinetakoak. Gizonezkoen arropak. Buruko zapia.

19. Emakume eta gizonezkoen antzinako arropak; jantzetxeak

- **Erref:** ESK-032/023
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:59:20. **Bukatu:** 01:01:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Emakumezkoen eta gizonezkoen arropak. Jostunen garrantzia baserrietan. Bolibarko bidea 1964 urte inguruan egin zuten; hala ere herrira arte abarkekin joaten ziren, eta bertan zapatak janzen zituzten. Janztetxeak.

20. Umeen arropak josteko teknikak

- **Erref:** ESK-033/001
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:05:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Umeen arropak josteko teknika desberdinak azaltzen ditu. Lehenago dirurik ez zegoen telak erosteko eta zegoenarekin moldatu behar izaten ziren.

21. Antzinako bizimodua

- **Erref:** ESK-033/003
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:05:45. **Bukatu:** 00:08:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Ume txikien inguruko zenbait azalpen; arropak. Antzinako bizimoduari buruzko gogoetak.

22. Laietan nola egiten zen

- **Erref:** ESK-033/004
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:08:15. **Bukatu:** 00:08:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Laietan nola egiten zuten azaltzen du.

23. Familia kontuak; auzo-eskola

- **Erref:** ESK-033/005
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:08:45. **Bukatu:** 00:12:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Aita arotza zen ogibidez. Arrioaren inguruko zenbait azalpen ematen ditu. Antzina, mutilak bakarrik joaten ziren eskolara, soldadutzara joateko. Gurasoak, eskolara joandakoak ziren biak. Mirenek bederatzi urte inguru zituenean, eskola berria ireki zuten auzoan.</p>

24. Eskola kontuak Errepublika garaian

- **Erref:** ESK-033/006
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:12:20. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Eskola kontuak; 13 urte zituenean gerra zibila hasi zen eta eskola gabe gelditu ziren. Errepublika garaian ez zuten otoitz egiten eskolan. Maisuaren inguruko azalpen batzuk ematen ditu.

25. Errepublika garaia

- **Erref:** ESK-033/007
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:16:30. **Bukatu:** 00:18:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Eskola kontuak Errepublika garaian. Garai hartako zenbait gertakizun gogoan ditu oraindik.

26. Giro politikoa Eskoriatzan

- **Erref:** ESK-033/008
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:18:00. **Bukatu:** 00:19:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Gerra garaian, giro politikoa herrian oso nahasia zen.

27. Gerra Zibila Eskoriatzan

- **Erref:** ESK-033/009
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:19:00. **Bukatu:** 00:23:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra garaiko kontuak. Milizianoak egon ziren lehenengo; gerora nazionalak sartu ziren. Tropen mobilizazioa. Anaiaren gorabeherak gerra garaian.</p>

28. Gerra Zibila; frontea Eskoriatzan

- **Erref:** ESK-033/012
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:25:45. **Bukatu:** 00:28:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra garaiko bizipenak. Frontea Eskoriatza inguruan egon zeneko kontuak.</p>

29. Gerra Zibila Eskoriatzan

- **Erref:** ESK-033/013
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:28:40. **Bukatu:** 00:31:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra garaiko kontuak Eskoriatzan. Jendea babeslekuetara joateko, sirenak jotzen zituzten. Bonbardaketak; hegazkinak.</p>

30. Gernikako bonbardaketa

- **Erref:** ESK-033/014
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:31:40. **Bukatu:** 00:32:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Mirenen osaba Gernikan zegoen bonbardaketa egunean; orduko gertaerak aipatzen ditu.

31. Giro politikoa Eskoriatzan

- **Erref:** ESK-033/019
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:37:15. **Bukatu:** 00:40:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Giro politikoa Eskoriatzan gerra aurretik. Gerra garaiko giroa: txapel gorria; Espainiako bandera...

32. Gerra Zibila; gerraosteko egoera

- **Erref:** ESK-033/020
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:40:10. **Bukatu:** 00:42:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerraostea ere gogorra izan zen; gerra garaiko fusilamentuak...

33. Amandrea goruetan

- **Erref:** ESK-033/022
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:42:55. **Bukatu:** 00:44:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Amandreak goruetan nola egiten zuen erakusten digu. Beraien baserrian lihoa (linua) ereiten zuten; lihoa kendu zuen azkenengo baserría izan zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com